



## PRENTSA OHARRA

### SAREEN SAREAK ETA TAULAK LANKIDETZA AKORDIOA SINATU DUTE EUSKADIN ETA KATALUNIAN KOMUNITATE EREDUA BULTZATZEKO

- *Hitzarmenaren helburua da pertsonen arreta emateko eredu berriak garatzea eta arreta hori komunitarioagoa izatea eta pertsonetan oinarrituta*
- *Akordioa Taulak Euskadira egindako bisitan sinatu da. Baita ere Gizarte Politiketako sailburuordearekin, Lide Amilibiarekin, eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako zuzendariarekin, Emilio Solarekin, bilerak egin dituzte*

**Bilbo, 2019ko Maiatza.** Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen Taulako presidenteak, Francina Alsinak, eta SAREEN SAREko presidenteak, Pablo Gonzálezek, pertsonen arreta emateko eredu berriak garatzeko lankidetzak akordioa sinatu dute. Arreta hori komunitarioagoa izango da eta pertsonetan oinarrituta egongo da.

Taula eta SAREEN SAREA pertsonen oinarrituta dagoen komunitateko arreta-eredu berrien garapena bultzatzera zuzenduta dauden ekimenak garatzen ari dira beren lurraldeetan.

Zehatzago esanda, Taula ari da Katalunia mailan herrialdeko proiektu globala garatzen XXI. mendeko pertsonen zuzendutako arreta-zerbitzuak eratzeko. Copèrnic da proiektuaren izena. Bestalde, SAREEN SAREA, Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean, *Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetan arreta emateko eredu komunitarioa sendotzeko eta bultzatzeko* lanean barneratuta dago. Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Bultzatzeko Estrategiari dagokionez, 7. jarduera da.

SAREEN SAREAK eta Taulak hainbat hartu-eman izan dute azken hilabeteotan erakunde bakoitzak garatutako proiektuak bateratzeko asmoz. Sinatutako akordioak honako hauek biltzen ditu sinatzaileen hitzetan: "elkarlanean aritzea bakoitzak bere lurralde eremuan proiektuak bultzatzeko, informazioa partekatzea eta alderdi jakin batzuetan lankidetzan aritzeko oinarriak finkatzea: nazio mailan eta nazioartean jardunbide egokiak identifikatzea, arreta-eredu berriak zehaztea, proiektuak kudeatzea eta ezartzea eta finantzatzeko Europako funtsak eta baliabideak bilatzea".

Sinatzaileek Euskadiko eta Kataluniako gobernuak akordiora batzeko dauden aukerak aztertuko dituzte elkarren proiektuak bultzatu ahal izateko.

#### **Kataluniako ordezkartzaren bisita**

Kataluniako Hirugarren Sektore Sozialaren Taula da Kataluniako hirugarren sektore sozialeko erakunde guztiak ordezkatzeko dituen elkarteak. 2003. urtetik, hirugarren sektore sozialeko 36 federazio eta erakunde nagusi biltzen ditu, eta horiek, aldi berean, irabazi-asmorik gabeko 3.000 elkarte sozial.



**Sareen sarea**

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala  
Tercer Sector Social de Euskadi



Taula d'entitats  
del Tercer Sector Social  
de Catalunya

Sinatze-ekitaldia Taulako ordezkariak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Eguna dela eta Euskadira egindako bisitan egin dute. Presidentearekin batera, bertan izan dira presidenteordea, Josep Giralt; presidenteordea, Núria Valls; Zuzendaritza Batzordeko idazkaria, Pepa Muñoz; eta zuzendaria, Roger Civit.

SAREEN SAREArekin eta Gizarte Politiketako sailburuordearekin, Lide Amilibiarekin, eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuetako zuzendariarekin, Emilio Solarekin, bilerak egin dituzte. Horietan, intereseko gaiak landu dituzte: Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko estrategiaren eta legearen edukia eta garapena, eta sektore sozialaren eta administrazio publikoen arteko elkarrizketa zibila besteak beste.

Bestalde, Sondikan dagoen Ola BBK Zentroa, BBK-Saioa-Gorabide familiako zerbitzua eta Lantegi Batuak enplegurako zentro-tailerra bisitatu dituzte (adimen-desgaitasuna duten pertsonen zuzenduta daude biak). Bizkaiko udalerrri berean, Izarza jatetxea, lan-munduratzeko helburu duen enpresa, ezagutu zuten. Ekimen sozialeko Peñascal Kooperatiba erakundearen mende dagoen jatetxea da.

### ***¿Zer da Sareen Sarea?***

*Sareen sarea Euskadiko [Hirugarren Gizarte-sektoreko](#) erakundeak biltzen dituen elkarte da. Gizarte justuago, solidarioago, elkartuago eta parte-hartzaileagoa lortzeko sortu zen 2014an; pertsonen bideratu ordez, zuzenean ekonomiari zuzenduta dagoena. Proposamen eta alternatibak elkarlanean eraikitzeko gaitasun handiagoarekin gizarte gizatiarraren alde egitea du xede. Gure sare eta erakundeekin lan egiten dugu euskal gizarteko ekimena identitate, helburu eta diskurtso elkarbanatura egokitzeko. Harremanak sortzen ditugu beste hainbat eragile sozial, politiko eta instituzionalekin gure misioa bete eta ikuspegia lortzeko. Gaur egun ondorengo erakunde-sozialen 15 sare biltzen ditu: **ONCE, Astialdi Sarea, ONGD Euskadi, EAPN Euskadi, EHLABE, Elkartean, Euskofederpen, FEDEAFES, FEVAS, Gizatea, Harresiak Apurtuz, Hirekin, Hirukide, Lares Euskadi, REAS Euskadi***

### **Informazio gehiago eta elkarrizketak:**

Naia Díez

688 729 340

komunikazio@sareensarea.eu